**VERTER RECYCLING-EN ADIERAZPENA, EGUNGO EGOERARI BURUZ**

*Zaldibar, 2020ko maiatzak 15*.- Enpresaren lehentasuna Eusko Jaurlaritzaren lantaldeekin lankidetzan jarraitzea da, Alberto eta Joaquín gure lankideen gorpuak aurkitu eta ateratzeko.

Bitartean, agintariei gure ezagutza eskaintzen jarraitzen dugu lurzorua egonkortzeko lanetan, baita jausitako hondakinei irtenbidea emateko lanetan ere, gordetegi seguruetan kokatzeko. Enpresak ahal duen guztia egiten jarraituko du egiteke dauden lanetan, teknikari espezializatuak eta eskura dituen bitartekoak bideratuta.

Eskerrak eman nahi dizkiegu erreskate-taldeko kide guztiei euren ahalegin eta prestasun nekaezinarengatik; lan zail, konplexua eta korapilatsua egiten ari dira, eremua egokitu eta behar diren segurtasun-baldintzak ezartzeko.

Verter Recycling-en *online* jakinarazpenak: www.verter.eus

*Informazioa: Arturo Zubiaga*

*Tel.: 94 415 86 42*